



ZERBITZUETAKO KOBRAKETA IRIZPIDEAK

2023/2024 ikasturterako eskaera egiteko garaian, ohiko moduan ikasturteko konpromisoa eskatzen da. Hau da, ikasle bakoitzak **ikasturtea hasi eta amaiera arteko zein zerbitzu behar duen adierazi beharko da**. Astean 5 egun, 4 egun, 3 egun, 2 egun edo egun 1 joango den adieraziko da eta **asteko zein egun izango diren zehaztu beharko da**.

Kobraketari dagokionez, egin den aukeraren baitan, hilabetero hautatutako egun kopuruaren arabera kuota kobratuko da. Hilabetero desberdina izango da, hilabeteko egun kopuruaren arabera.

Konpromiso hori hartu nahi ez duenarentzat ere aukera egongo da jangela zerbitzua erabiltzeko. Modu horretan jangela erabili nahi izanez gero, goizeko 10:00etarako abisatu behar da jangelako telefonoetan (Altamira: 943888154 – Villa Eugenia: 943882341) edota jangela-zaintza@jakintza.eus helbidera idatziz. Kasu honetan, **egun solteetako prezioa** ordainduko da.

Irteereterako, jangela kontratatuta duen ikaslearentzat pic-nic delakoa prestatuko da: ogitartekoa, fruta, jogurta eta botila bat ur.

Erabiltzaile berrien izen emateak ikasturtean zehar onartuko dira. 3. hiru hilekoan, berriz, alta guztiak prezio soltean kobratuko dira.

BAJA ESKAEREN KUDEAKETAK:

JANGELA / ZAINZA / AUTOBUSA / OINEZKO GARRAIOA: Hartutako konpromisoa EZ da nolana ere aldatzerik izango. Bajarik EZ da onartuko, salbuespen kasuak izan ezik (langabezia, amatasun bajak, gaixotasun luzeak, gurasoen laneko ordutegi aldaketak). Kasu kasuko azterketa egingo da eta egoera justifikatzeko paperak aurkeztu beharko dira.

Ikastolaren eskumenetik kanpo gelditzen den ezinbesteko arrazoiengatik suertatutako egoeren aurrean (pandemia adibidez), gertatzen den uneko hilabetea soilik ordaintzeko konpromisoa hartuko da.